

Bost bidaiari

Felipe Juaristi

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1994



Zumaiaiko Udala

*enskar
txanpan*



Bost bidaiari

Felipe Juaristi

Julene Azpeitia 7. ipuin lehiaketa

1994

2. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Felipe Juaristi (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Izugarría izan zen gudua. Goizalbako lehen argi txintek distiratzearekin batera hasi zuten gudua, eta borroka hori amaitu zutenean, nekaturik eta gorri-gorri eginda zihoan eguzkia sartzerako. Gilles Perrault zaldunak ez zekien garaile ala galtzaille atera ote zen gudu zelaitik alde egin zuenean. Bazekien sarraski handia egin zutela, etsai oste bat hil zuela bere ezpataz, odolez ziprztindurik baitzeraman altzairua ez ezik, eskuin besoa.

Indarge sumatzen zuten bere burua. Zaldiari utzi zion animaliak bere bidea, eta era berean zaldunarena, har zezan, eta ez zen harritu zamariak basora zuzen-zuzen jo zuenean. Biek behar baitzuten atsedean hartu, ordu batzuk lasaitasunean igaro. Nahikoa izango zitzaion tarte hori zaldunari, gertatutakoa ahanzturaren lanbroetan gorde eta odolaren irudia ere aiena zedin burutik, arrastorik utzi gabe; gudu-haizeek eragindako zirimolak jabal zitezten haren barnean eta hezurrek beren egokiera aurki zezaten gorputz jipoituan. Eskuak garbitu ere nahi zituen, errekarren bat edo iturriren bat aurkituz gero.

Ilun zegoen basoa. Zaldiaren senaz fidatu izan zen beti, ordura arteko unerik latz gogorrenetan ere ez baitzion hutsik egin, eta horrexegatik beharbada, mantso zihoan aberea, ezkien abar-arteek osatzen zuten uztaiaren azpitik. Argi bat ikusi zuten berehala, basoaren erdian, soilgune nabarmen batean. Sua zegoen nonbait piztuta. Zaldiari gelditzeko agindu ondoren jaitsi egin zen zalduna. Bridatik hartuta poliki-poliki, otso pausuetan hurbildu zen. Suaren inguruan soldadu bat berotzen ari zela ohartu zen. Ezpata atera zuten bere zorrotik. Beste gizona, ordea, ez zen ikaratu. Normandiarra zen hura ere, hala aldarrikatzen zuten haren gerra-janzkerak. Diosala egin zioten elkarri. Gero, eseri egin ziren.

—Berorren Mesedea, ez dut deus zuri eskaintzekorik —esan zion soldaduak, nekatu ahotsez, zaldunaren gorentasuna ezagutu bezain pronto.

—Ongi da, ez dut ezer nahi. Ikusi al duzu borroka? —galdetu zion Gilles Perraultek, eskuak berotzen zituen bitartean.

—Bai, bertaxetik nator.

—Irabazi al dugu?

—Bai, irabazi egin dugu.

Zalduna etzan eta berehala lokartu zen. Suari egurra botatzen segitu zuten soldaduak. Garrei aritu zen so eta so, ezer adierazten ez zuten begiekin. Pentsamenduak erre nahi balitu bezala. Beilan igaro zuten gau osoa, gerrak ostu zizkion gozotasuna eta gatzetasuna sutan berriro eskuratu nahi balitu bezala. Esna egonik egin zuten amets.

Biharamunean, txori goiztiarrekin batera iratzarri zen zalduna. Eskuak eta aurpegia garbitu zituen ondoko erreka ur zilarretan. Bordelera joan behar zuela eta ea lagunduko ote zuen galdetu zion soldaduari. Hark baietz, elkarrekin joango zirela, zaldunari axola ez bazitzaion. Gilles Perrault, ezpata bere zorroan sartuta, zaldira igo zen. Soldaduak, bere uztia eta geziak hartuta, oinez jarraitu zion atzetik, gertu-gertutik.

Ordu luzetan ibili ziren, elkarrekin hitz bat bera ere mintzatu gabe. Eguerdia atzean geratu zitzairen eta, azkenik, basoan ezkutatu samar zegoen baserri batera iritsi ziren eta gelditu eta bertara sartu ziren bazkari legea egiteko asmo sendoz, goseak baitziren biak. Barruan hiru gizon zeuden eserita, jaten eta edaten. Lehen begiratuan jakin zuen Gilles Perraultek apaiza zela haietako bat, zeraman tunika beltza ikusi zueneantxe. Dendari itxura zuten beste biak.

Esertzera gonbidatu zituzten.

—Egunon jaunok. Bordelera bazoazte eser zaitezte gurekin hemen, gu ere haraxe goaz-eta. Nire izena Sansdieu da, Jacques Sansdieu, eta nirekin dauden hauek, Musde Abbadie, poeta ospetsua, eta Musde Bleu, musikaria —esan zien apaizak, bere ezkerrean eserita zegoen gizona seinalatuz estreinakoan; eta bere eskuinean eserita zegoena bigarrenez. Irribarrea zerion haren aurpegiari, pozik zegoela zirudien.

—Gilles Perrault dut izena, Gilles Perrault zalduna naiz, eta hau soldadua da, izenik gabeko soldadua —erantzun zuen zaldunak, atzean zuen soldadua seinalatu gabe, zeinu bat soilik egiten zuela airean, zeinu huts ustel bat, inorengana gabea.

Baserriko jabeak bost oilasko eta bildots bat, erreka denak, ekarri zizkien, pittar bat ardorekin

—Gerratik al zatoz, jauna? Odoltsua izan omen da, geure bidetik saihestu behar izan dugu eta ostatu honetan gelditu. Nahiko ahal du Jainkoak bakea etor dadin gure artera! —hasi zen apaiza esaten, ahots ozenez, pulpitan bailegoen. Bildots hanka bati ekin zion ondoren. Gilles Perraultek ez zuen erantzun. Beste mahaikideei begiratu zien eta zirkinik egiten ez zutenez, oilasko errea hartu eta soldaduari eskaini zion, esertzeko agindua emanik hari. Ardoz bete zuen edalontzia.

"Askotan esana dut. Gerra da Jainkoaren zigorretako bat, geure bekatuengatik merezi duguna —segitu zuen hitz egiten apaizak—. Gehiago errezatu behar genuke, eta horrela, beharbada, beratuko litzateke haren bihotz guztiz errukiorra.

Zaldunak bigarrenez bete zuen edalontzia. Apaizari begiratu zion bere kristal-antzeko begiekin.

—Gerra, gerra da beti. Eta Jainkoari Jainkoarena dena eman behar zaio, Erregeri berea dena bezalaxe —adierazi zion zaldunak, erlijio kontuetan guztiz ezjakina ez zela frogatu nahian—. Jainkoak ez du ardurarik ttikiena ere gizonok armatzen ditugun gerretan.

Apaizak poeta gisa aurkeztu zuen gizonak beste bildots hanka bat hartu zuen bere esku zuri finekin. Edalontzia ia goraino bete eta hitz egin zuen:

—Gustukoa dut nik gerra, gero; estetikoki badarik ere. Indarrak lehian, sufrimendua ugari! Inspiratu egiten nau. Ezinago ederra da gizonaren

bortizkeria hori, Naturalezaren indarrarekin berdintzen duena. Idatzi berri dut poema bat eta bertan esaten dut ibaiaren antzekoa dela gerra.

—Baina ura eramane beharrean, arre . darama bere bidetik odola —eten zuen zaldunak, irribarre egin zuen bitartean.

—Ez, ez nuen horregatik esaten. Ibaiaren jariora bezalakoa da gerrarena, ez dago hura geldiaraziko duen inortxo.

—Heriotza izan ezean.

—Horixe, heriotza da gure bizitzen itsasoa.

—Jainkoak bidaltzen digu heriotza, hark nahi duenean, eta nahi duen erara. Laudatua izan bedi haren izena! —esan zuen apaizak eskuak sabairantz altxatuz. Ondoren, Musde Bleuri zuzendu zitzaion, ordura arteko elkarrizketa guztia adi-adi entzuten egon zenari—. Isilik zaude, Musde Bleu. Zein da zure iritzia gerrari buruz?

Musikariari begiratu zion Gilles Perraultek ere. Jaten ari zen, harentzat ez zuten axolarik mundu honetako gauzek. Ez zuen inolako grinarik erakusten, ardiki puskak eramaten zituen ahora, beste egitekorik ez balu bezala.

—Gerra ez dut maite. Esan nahi dut ez ditudala gerraren ondorioak maite: gari soroak kiskalita, etxeak erraustuta, gizon-emakumeak hil-hilik, haurrak goseak. Heriok dena kolore berdinez pintatzen du gerran—hitz egin zuen musikariak.

—Odolaren kolore berberaz —moztu zuen zaldunak, ahotsaren doinua aldatu gabe— Odolaren kolore gorri-gorriaz.

—Ez dut kolore gorria maite, eta ez dut koloreei buruz iritzi sendorik. Ez naiz pintatzailea .

—Baina zure adimena bizkortuko da seguru aski gerran, arnasa emango dio zure musikari —atera zitzaion poetari, eskuak ardikitik kendu gabe.

—Ez, gerrako musika ez zait interesatzen batere.

—Ai, entzungo bagenu oraintxe zeruko musika, aingeruen korua, Jainkoaren dohainez gainezka —oihukatu zuen apaizak, bildots hezurak zuri-zuriak platerean utzi ondoren.

—Doinu bakarrekoa da gerrako musika: deiadarrak, garrasiak, intziriak, ezpatek ezpaten kontra jotzean ateratzen dituzten doinu sarkorrak, hil-hurrenen agonia-kexuak... —esan zuen zaldunak, inori begiratu gabe, begiak eta pentsamendua edalontzi hartan finkatuz.

—Bizitzaren musika, ordea... —eten zuen poetak, zaldunari engolatuegia iruditu zitzaion ahotsaz.

—Jainkoaren esku dago bizitza bera ere. Hark nahi duelako gaude hemen, janari gozo eta are edari gozoagoen aurrean. Jan dezagun beraz, hoztu baino lehen, eta edan dezagun lehertu baino lehen —sententziatu zuen apaizak.

Ollaskotik, bildotsetik, ardotik gehiago ekartzeko eskatu zion ostalariari.

Zaldunak berriro ardoz bete zuen edalontzia. Soldaduari begiratu zion. Hura isilik ari zen jaten, animalia batenak ziruditen ahots-mugimenduekin. Hala jaten ikusita soldadu hark seguru aski jende pilo bati bizitza erauzi izango ziola

otu zitzaion zaldunari, baina horrek ez ziola hala ere jateko gogorik kentzen. Bere buruari erreparatu zion segituan, ez zuen mokadu bat bera ere jan eseri zirenetik, ez gogorik ez zuelako, deus irentsi ezin zuelako baizik. Edalontzitik edan zuen, egarriak barrenak erreko balizkio bezalakoxe grinarekin. Mozkortzen hasia zen. Konturatu gabe joan zitzaien denbora.

Arratsaldea izango zuten gainean mahaitik altxatu zirenean. Nork bere zaldia hartu, soldadua ezik, oinez baitzihoan, eta Bordelerako bideari ekin zioten. Gilles Perrault aurre-aurrean, deus pentsatzeko ere gogogabeturik. Sansdieu apaiza ondoren, erdi lotan, dinbili-danbala mugituz burua. Musde Abbadie hirugarren, zuhaitzen goieneko abarrei begira, handik zehar sartzen ziren eguzki izpiak begiez jan nahian, une horretako irudipenak eta zirrarak poema batean islatzeko ariketan. Musde Bleu laugarren, kantu bat ahoz kantatzen. Lasai-lasai zihoazen, ezer berezirik agituko ez balitzaie bezala. Eta orduantxe gertatu zen behin ere ikusi ez zena. Basoko txori guztiak mututu egin ziren Musde Bleuk bere melodia hura aireratu zuenean, eta musikaria isiltzean txoriak berak ziren pixka bat lehentxeago entzundako doinu hura basoan zehar zabaltzen zutenak. Soldadua zihoan orpoan, isil-isilik, beti bat bere aurpegia. Zeinu gabea.

Iluntze aldera, basotik irten aginean zeuden; atzean geratzen ari ziren arbola handien abar-arte itxiak, hostoak astintzen zituen haizea, txorien kanta armoniatsuak, eta, baso batek, edozeinek ere, musika bat duela jakinarazten duten mila detalle ttikiak. Berehala eroriko zitzaien gaua; handik ordu batzuetara ez zen deus ikusiko. Artean izango zuten, seguruenik ere, hurrengo herrira iristeko astia.

Zubi batekin egin zuten topo. Ibaiaren zurrumurru biguna nekez egin zitzaien entzungarri, aspaldian euririk ez egin eta ur gutxi baitzihoan ubidetik, hari bat ia. Han ez zuten aurkitu beste zubi askotan egon ohi ziren zaindariatako inor, bertatik igaro nahi zuenari sari bat eskatzen zuten horietako bat bera ere ez. Zaldien ferra-hotsa erritmikoa zen, desfile batekoa bezalakoxea, eta une batez aienatu zen erabat ibaiaren murmurioa; burdina zurezko zoruaren kontra besterik ez zen entzun han, lau zaldi eta oinezko bat bata bestearen atzetik igaro zirenean. Herrian sartu ziren. Bertako ostatu bakarrera jo zuten, afaldu eta atsedeen-atsegin hartzeko, horrelakoetan beren burua eskaini ohi zuten emakume gozoen ondoan, ahal balitz. Den-dena ondo ateraz gero, hurrengo egunean, arratsalde partean, egon zitezkeen Bordelen, mahastiz betetako ordokiak, kolore gorritzko lur azkengabeak, itsasertzeraino zabaltzen zirenak, zeharkatu ondoren.

-2-

Gizon bat zegoen jangelan. Tantaia, argala, ilehoria. Normandiarra zirudien. Beltzez jantzita zegoen. Edalontzi bat bete ardo edaten ari zen.

—Ailegatu zarete azkenean. Arratsalde osoa daramat zuen zain.

Apaiza, poeta eta musikaria harrিতuta geratu ziren. Zalduna eta soldadua soraio, bidaiaren hasiera-hasieratik espero izan balute bezala gizon harekin topo egitea.

—Ezagutzen al dugu bada elkar? —galdetu zuen Gilles Perraultek.

—Entzunez soilik. Aurreneko aldia da buruz buru jartzen garena, askotan ikusi izan zaitudan arren. Zuk uste baino gehiagotan egon nauzu, hala ere, zugandik hurbil. Atzo, esate baterako, baina ihes egin zenidan. Nire erruagatik noski, luzeegi entretenu bainintzen angelesekin.

—Angelesekin? —galdetu zuen zaldunak ahots apalez.

—Bai, zu eta zure lagun frantsesak haiek hiltzen aritu izan zareten bitartean ni ere hantxe egon naiz, gudu zelaian, zuei so eta so, baina ezin izan dut zuekikoak egin. Hain beste lan eman didazue-eta. Oso abaildua bukatu zenuen, eta horrexegatik banekien nirea izango zinela hemen.

Gilles Perraultek eta soldaduak elkarri begiratu zioten, baina haien aurpegietan ez zen izu-laborriaren arrastorik xumeena ere ageri. Aspaldi gainditua zuten beldurra, barreneko hesteetan irentsia. Izuaz haratago bizi ziren. Lortua zuten behin betiko lasaitasuna, soilik jende asko hilarazi ondoren eskuratzen den egoera: bihotzaren mamian ezereza. Iraganera eraman zuen pentsamendua, guduko gorabeherak argitu nahian, baina sarraskiak eta sarraskiak besterik ez zitzaizkion etortzen burura. Gizon ezagutu berri hark arestian esan zionaz ari zen oroitzen, neke handiz. Eta sinetsi zuen oso zegoela abaildurik. Ulertzen hasi zen zergatik ez zen joan beste gerlariak bezala guduaren irabaziak hartuta Pabera, zergatik jo zuen basora. Eta indar ezkutu baina errime bat igo zitzaion barne-barnetik gora, errenditzera bultzatzen zuena une hartan bertan, gainera zetorkiona oldarrik gabe onartzera, bai baitzekien zer izango zuen ondorengoa. Baina, era berean, bazuen beste indar bat ere deika ari zitzaiona, ahulagoa hau, asalda zedila agintzen ziona, bere bizitza garesti saltzera behartu nahi zuena. Gerlari sena, noski.

—Kostako zaizu, ez zaizu erraza gertatuko —esan zuen zaldunak bigarren indar horri men eginez.

—Ez, noski, ez da erraza izango, ez luke bestela inongo interesik izango. Zerbait lortzearen zailtasunak ematen dio lortu nahi dugunari balio altua. Txikikeriak, errazkeriak azken finean, ez ditut gustukoak. Horretan, beste askotan legez, profesionala nauzu, ez hasiberri aurpegi gorri bat —erantzun zuen beltzez jantzitako gizonak. Eta ahots lasai baina ozen batez gaineratu zuen, talde osoari zuzenduz bere suzko begirada—. Eser zaitezketen nahi baduzue. Esku dezakezue jateko eta edateko. Oso gozoa da hemen maneatzen duten erbi gisatua. Edateko berriz, primerakoa da lurralde honetako ardo gorria, parerik ez duena inon, eta ondotoxo dakit zer esaten ari naizen, goitik behera ezagutzen baitut mundua. Gau osoa dugu solasean aritzeko elkarrekin.

Bostek obeditu zioten. Oso urduri zegoen apaiza, elkarrizketa osoa, ezer deusik galdu gabe, entzuna baitzuen. Ahoa itxi eta otoitz egiten ari zen. Poeta eta musikaria, aldiz, erabat harrিতuta zeuden.

Arrotzaren mahaira eseri ziren guztiak. Elkarri begiratu zioten, mesfidati begiratu ere.

—Uste dut badela neure burua aurkezteko tenorea —esan zuen arrotzak— Uste ez baduzue ere, Herio jauna nauzue. Baina beste batzuek Balbea deitzen didate

—Jainko Santuaren izenean —oihu egin zuen apaizak.

Poeta eta musikaria dardarak jota utzi zituen aurkezpenak, ez zekiten non sartu hankak, are gutxiago eskuak, are gutxiago beren buruak.

—Santua bai, baina zure zoritxarrerako, Sansdieu jauna, hura goian eta ni behean izan zen arrotzaren ateraldia—. Eska dezagun jateko zerbait.

Ostatuko jabeari deitu zion, mahaira eserita zeuden guztiak kordokarazi zituena trumoi ahotsez.

—Ekar ezazu erbi gisatua. Denontzat.

—Zer egin nahi duzu gurekin? —galdetu zuen ahots larriz poetak.

—Musde Abadie! —erantzun zuen Heriok— zure mirabe nauzu. Oso onak zure azkeneko poemak! Oso sentikorak, belaxka eta topiko samarrak diren arren. Batez ere zera zioena eta mesedez zuzendu nazazu oker esaten badut. Nola zen? Bai, badakit —eta orduan aulkitik altxatu eta mahai gainera igo zen, hobeto deklamatzeko— "Herio dator zaldi gainean, armadura beltzez jantzirik". Gainerantzekoaz ez naiz oroitzen. Ikus dezakezun legez, hemen ez dago ez armadurarik, ez zure irudimenak deskriba dezakeenetik ezertxo ere.

—Zertan ari zara gurekin? —galdetu zuen Gillies Perraultek.

—Lasai, Gilles Perrault jauna —erantzun zion arrotzak, mahaitik jaitsi eta lehen zuen tokia hartu ondoren—. Gau osoa duzue hori jakiteko. Baina afarria eta ardoa hemen ditugun ez gero, ekin diezaiozun jateari. On egin dagizuela, ahal badu, behintzat —eta irribarre makur bat lerratu zitzaion ezpain artean.

Zalduna, soldadua eta arrotza jaten saiatu ziren. Apaizak, musikariak eta poetak ez zekiten zer egin, ez ziren ezertarako gai. Elkarri begiratu zioten, laguntasun bila. Ondoren arrotzaren gana jiratu zituzten beren begiak, pietate bila. Ondoren afaltzeko jakietara irristatu zitzaizkien. Ardoa zegoen tokira azkenik.

—Horrelakoxeak nahi izaten ditut nik gizonak. Zorigaitzean edaten dakitenak —esan zuen arrotzak eta ardo gehiago eskatu zion ostalariari. Inork ez zion muzin egin edatekoari. Denek hartu zuten handik.

—Honez gero izango duzu zerbait prestatua guretzat? —ausartu zen Gillies Perrault galdetzera.

—Nola ez, joko polit bat, atsegina eta erabakigarria. Bizi edo hil —erantzun zuen barrez lehertzen arrotzak.

—Bizi edo hil? —galdetu zuen ahots-korapilo batekin apaizak.

—Bai, bizia, zeuen bizia izango duzue jokoan.

Denak mututu ziren bat batean.

—Zergatik kezkatu, ordea? Lehenago ere egon zarete zuen bizia galtzeko arriskuan. Gertatu izan da nik ez dudala zuetaz arduratzekeo betarik izan, lanpetuta egon izan naizelako orduan. Prest nago orain oker hori zuzentzeko, zeregin horretan behar adina denbora galtzeko. Eta minutuak eta orduak sobera izango ditugunez, has gaitezen oroitzen. Musde Sansdieu, aurrena zu...

Izu-ikararen zitzadak zulatu zuen apaiza. Otoitzetan murgildu zituen bere hitzak eta bere pentsamendua.

—Bi urte izango ditu —segitu zuen arrotzak, ahots ohiz baino gozoago batez—lapurreta egin zutela Parisko Kardinal Primatuaren kapelan. Urrezko kopa bat ostu zuten, adituek diotenez Carlomagnok berak, Enperadore izendatu zutenean, handik edateko hartu zuena, baina ez zaitezte gehiegi fida

adituen hitzez, garai hauetan eskuz esku dabilen diru xehea baino faltsuagoak baitira haietatik gehienak. Zeu zinen kopa haren zaindaria, kapelako gainontzeko objektu baliozko guztiena zinen bezalaxe, eta zure errua uxatzeko, eta, bide batez, Kardinalaren begi susmoz beteak zure gainetik kentzeko ahaleginean, fraide bati, anaia Domenicori, kandelak eta ezkoak pizteko ardura zuenari, leporatu zenion ostea. Zeure hatz erakuslea izan zen hura seinalatu zuena, Eliz Kontseiluko kide guztien aurrean eta gaineratu zenuen ahots zakarrez, sufre usaina jario zitzaizela zure orduko hitzei: "Ken biezat Jainkoak bizia, gezurra badiot!". Ez pentsa entzungor egin nizunik, ondo aditu bainizkizun zuk esandako letra eta silaba guztiak, baina beharrean nengoen, badakizu, noski, egun berean eman ziotela eta azken fina herexe inozo simple bati, Notre Dameko atarian bertan, sugarren artean, eta hantxe nengoen ni haren arimaren hondarrak besapean hartu eta ifernura garraiatzeko zain. Zuk bazenekien, noski, fraide gizajo hura, anaia Domenico, errugabea zela, lapurreta gauean bertan bere gelatxoan sarturik egon baitzen, emagaldut batekin amodioaren loreak usaintzen, zeuk frogatu ahal izan zenuen bezala, kapela ilunduxe ikusi zenuelako fraideaz galdetu, eta emakume batekin joaten ikusi zutela esan zizunean Kardinalaren lekaio batek. Hala ere, Kardinalaren begia zuregandik saiheste aldera, ez zitzaizun hatza dardaraz hasi, fraidea seinalatzerakoan. Primatuak ez zuen gehiegi sinetsi zure hitzetan, fraidetxoaren amorante gau batekoa, doña Blanca bera, hartako ofizioan Parisen eta enparauetan ezaguna, limurtu baitzen, fraidearen amodioz asebite ondoren, elizgizon handi haren ohe bigunera, eta hantxe aitortu zion fraidearen jaiotasuna izarapeko kontuetan, gau hartako xehetasunik ttikienak kontatzearekin batera. Baina ezin izan zuen ezer frogatu, harriak bere buruaren kontra botatzea baitzen fraide hura non egon zen ikertzen hastea. Eta hura italiarra izaki, kanpotarra beraz, eta zu frantses petoa, etxekoen alde jokatzera erabaki zuen, ez bihotz-zimikorik gabe, gizonaren justiziarri baino Jainkoarenari lotuago baitzegoen, eta obratu zuen bezala obratuz, bazekien Guztiz Ahdunak, dena ikusten duenak, lehentxeago edo geroxeago, kontu estuak eskatuko zizkiola eta ezin izango zuela haren begi salatartik ihes egiterik.

"Ondorioak ere badakizkigu. Frai Domenico urkatu egin zuten, Notre Dameko atarian. Aurre-aurrean ikusi nituen haren hankak dardarak jota, airea astintzen; haren aurpegia anpuloi gorria baino gorriago. Aditu ere nituen haren bihotz azkartuaren taupadak; sumatu nuen haren arima txori izutia bailitzan hegan egiten, nora eta nire eskuetara. Ikuskizun zoragarria, zerbait zoragarriki baldin badago mundu honetan. Ez da malenkonia afektatua haren portaera zuritzera bultzatzen nauena, heriotza hamaika aldiz merezia baitzuen gaizkile, biraogile, herexe eta andrezale hark, baina ez zuk haren bizkarrean zamatu zenuen delituarengatik. Horixe ezetz. Paris uztera behartu eta Picardiako herrixka batera eramane zuten doña Blanca, Kardinalaren tristurarako, maitemintzen hasia baitzen emakume hartaz. Gutun izenpetu gabea jaso zenuen zuk orduan, eta bertan agintzen zitzaizun uzteko urrezko kopa hura zegokion tokian, edo bestela igarriko zeniola. Konfiantza gehiegi izan duzu beti zeure buruaz ez ezik, zeure patuaz, eta ez zenuen bitxi hura itzultzeko zirkinik egin. Gutun mehatxuzko hura jaso zenuenetik bi astetara kapelara erretiratzeraz zindoazenean, bost gizon azaldu zitzaizkizun, zein baino zein indartsuagoak bostak, eta hantxe hasi ziren zu jipoitzen. Une hartan nire begia Senako uretara erori zen merkatarri flandestar batengan pausatua izan ez balego, ez zinatekeen hartatik aterako. Baina orain badut denborarik franko"

Negarrez hasi zen apaiza, istorio hori entzun eta berehala. Hitz egiten zuen, malko eta zotinen artean.

—Jainkoa, barka egidazu. Ez ezazu zure zerbitzaria hiltzera utzi.

—Ez nuen hau espero —esan zuen arrotzak barrez lehertu beharrean—. Bekatari bat bere bekatuengatik negarrez. Ez da egunero ikusten.

Ardo gehiago eskatu zuen, baina ostatuko jabea lo egitera oheratua zenez, berak ekarri zuen barrika bat, ttikia baina betea.

—Luzea izango da gaurko gau hau. Eta hotza. Zer diozu guzti honetaz, Musde Abbadie? —esan zuen poetari begiratuz.

—Ez dakit zer pentsatu.

—Hara hemen, pentsatzen ez dakien poeta bat. Eta ospetsua, inondik inora. Horrek ez du urrezko koparik osten. Klase gehiegi du halako txikikerietan jarduteko. Urrezko poemak idazten ditu eta besteenak diren emakumeei bidaltzen dizkie, poema horiek leuntzen baitiote haienganako bidea, ezinbestean gertatuko den topaketa amodiozkoa errazago bihurtuz. Hala izan zen Isabelekin, ezta?

—Jauna, ez dakit zertaz ari zaren!

—Ez dakizula zertaz ari naizen! Kanta batekin gogoraraziko dizut.

Inongoa ez zirudien ahotsaz kantatu zuen. Ostatuko hormak dardaraz jarri ziren, apaizak ia galdu zuen konortea, poeta izerditan blai, begiak zuritu zitzaizkion musikariari... Hain zeuden guztiak, zalduna eta soldadua ezik, sorgorturik!

"Argizagia baino ederrago,
zeruan halakoxerik ez dago,
haren begiak izarrak bainoago,
denen artean Isabel dut nahiago."

—Oroitzen al zara orain? Ai, Isabel, mundu honetan egon den emakumerik ederrenetarikoa. Hura ikusten ari naizela dirudi: begi distiratsuak, su txinpartak bailiren; aho ederra, ilargi erdiaren formakoa; sudurra ezinago zuzena; aurpegia, arrosa kolorekoa, sagarren modura biribila; ile adatsa, urre kolorekoa. Atsegin nuen nik ere hura begizatzea. Bidali zenion bigarren poema irakurri zuenerako, ezagutu nahi izan zuen bihotza punpa bizietan jartzen zuten letra haien egilea. Hirugarrenerako, poetaren besoetara erori nahi izan zuen, belarrira esan ziezazkion ilargipean amodio sutuaz bustirik berarengana iristen ziren hitz gozo eztia bezalakoxe haiek. Laugarrenerako, beti guztirako maitasuna eskaini zizun. Bosgarrenik ez zen izan. Bere senarra lanbidez merkataria Britainiara joana zela aprobetxaturik, gauez, lapur baten gisa, emazte egin zenuen, kanabera gorritz pintatutako batean, Flandeseko izara lihozko dotoreen azpian. Biharamunean, ordea...

Etenaldi laburra egin eta adi-adi entzuten ari zen publikoari zuzendu zitzaion; haien begietan ikusi zuen istorioak harrapatuak zituela jadanik, zalduna eta soldadua ezik, gehiegi zekiten-eta haiek, baina ez zen horretaz arduratu. Iritsiko zitzaien haiei ere beren txanda.

"...asperturik zegoen emakume hartaz eta gaua iritsi baino lehen abandonatua eta ahaztua zuen. Isabelek, engainatu zutela jakitean, bere burua eskaini zidan, inongo baldintzarik jarri gabe, eta nik hartu egin nuen, ez gogoz kontra, aitoren hau zilegi bazait, aspaldidanik desiratzen bainuen emakume hura eta ez nuen sinesten iritsiko zitzaidanik nirekin egongo zen unea. Senarra itzuli eta bera ez zegoelarik gertatu zenaren berri jakin zuenean, emazterik gabe, alargun, alegia, utzi zuen gizona bere ezpata zorrotzez alderik alde zulatuko zuela agindu zuen, santu guztiak lekukotzat hartuz. Hori ezean fin gaiztoa emango ziola bere buruari.

Beste etenaldia. Poetari begira gelditu zen; izua zebilen harat-honat haren begietan.

"Bila eta bila ibili zitzaizun ezer deusik lortu gabe. Baina egun batean, etsipenaren zurrunbiloan murgildurik zirudienean, haren belarrietara iritsi zen bazela Rotxelan poeta ahozuri bat, emakumeen bihotzak bere egiten zituena, gaztelu irekiak balira bezala. Harainoxe hurbildu eta ostatu hartu zuen, zuk zeure amodiozko abenturak ahitu ondorenean lo egitera joaten zinen etxean bertan, eta hantxe egon zitzaizun zain. Gero, borroka egin zenuten.

Zaldunaren begiak pixka bat argitu izan ziren, borrokaren aipamenak bititu egin baitzuen. Soldadua erdi lo zegoen, mahaiaren bazter batean, esku eskuinekoak alde bereko masailari tinko eutsirik.

"Gizon bat larriki zaurituta erori zen lurrera, ostatuan zegoen jendearen begien aurrean, eta beste gizon bat preso eraman zuten Rotxelako herri zaindarien. Lurrekoa, noski, zeu zinen, poeta ospetsua, eta ez dut esango jendea tristatu zenik halako egoera negargarrian zu ikusi zintuenean. Beren emazteak handik aurrera seguruago zeudela jakin zuten, eta haietako askok, aspaldiko partez, lasai egin zuten lo. Ezkutupean haur egiten ari zen ijito gazte samur bat zelatatzen nengoelako egin zenidan ihes, hura ere, niretzat izango zela otu baitzitzaidan, ordu onean otu ere. Eta damu dut, baina damuek ez dituzte harriak mugiarazten, ezta ibaiko urak beren bidetik saihesten. Hala diogu guk, behintzat, infernuko zuloan. Baina badakizu, askotan aipatu baituzu zure poemetan, zein zoroa den Fortunaren gurpila, jirabirak ugari ematen dituela inortxo ere konturatu gabe. Hemen gaude, azkenik, zu eta biok.

Negarrez hasi zen poeta, bizia barka ziezaion erregutuz arrokari.

—Hitzetan trebe direnak, are trebeago zeinuetan —erantzun zuen hark. Ardoa eskaini zion, adore har zezan.

—Orain zure txanda, musde Blue. Ba al duzu zerbait esatekorik?

—Ez —eten zuen musikariak laburki.

—Ondo da. Nik esango dut zure orde. Oroitzen al zara maisu Danielekin.

—Bai, nola ez. Hark erakutsi zidan ia dakidan guztia.

—Eta eskerronez ordaindu zenion...

Asaldu egin zen musikaria. Begiak gorri-gorri jarri zitzaizkion, amorrugatik baino gehiago oroimenaren leizean gordeta eduki nahi zuen pasadizo beltz lazgarri baten kariaz .

—Nik maite nuen maisu Daniel.

—Horregatik bidali zenuen nigana —eta barrez hasi zen arrotza, aho arkuak hautsi beharrean.

—Nola bada zuregana? Zer esan nahi duzu? Hillik dagoela? Orain astebete bat bizirik zegoen.

—Ezin duzu, noski, horren berri jakin. Ordu honetan bertan ari da bizi ala ez bizi, zu ere hil zaitezela desiratzen. Ez harritu. Gutxi dira lasai, begiak itxita eta beren buruekin bake santuak eginda hiltzen direnak.

—Zergatik? —atera zitzaion musikari larrituari.

—Zeuk, haren ikasle hautuenak ostu zeniolako berak azken hamar urte hauetan egunero landu eta zaindu izan duen musika partitura. Hainbeste atsekabetu zuen horrek, ezen beti guztirako gogo eza jabetu baitzen haren baitan, eremu latz honetan aurrera segitzeko kemenik gabe uztearekin batera. Baina barkatu beharko didazue. Zain daukat-eta hura. Lana lana da, ez bilatu zeregin honetan arrazoi pertsonalik. Espero ere dut ez zaretela saiatuko ihes egiten, alferrekoa izango baitzaizue. Ah!, Gilles jauna, zeu izan zara hainbatetan nire besoa, zeuk ere jakin gabe, noski. Ea, esaiezue, doazen tokira doazela ere, ez dutela aurkituko non ezkutatu.

Mahaitik altxa, atea ireki eta gau beltzera irten zen, zurrunbilo bat balitz bezala.

- 3 -

Isilik geratu ziren denbora luze batean, izuak jan baitzizkien barruan zeramatzaten hitz guztiak. Ez ziren jatera saiatu, ezta edatera ere. Beren pentsamenduetan galdurik, begiak itxi zituzten.

Zalduna izan zen aurrena hitz egin zuena.

—Jaunok, alferrekoak ditugu pentsamendu tristeak, alferrekoak heiagorak. Hil behar badugu, eta hala ematen du izango dela gure patua, sal dezagun garesti geure burua.

Soldaduak, zaldunaren agindu hori entzun orduko, esnatu eta aiztoa atera zuen, zeudekeen etsaiak oro hiltzeko prest. Inguruan zeudenak ezagunak zirela ikusirik, zurrutada bat ardo edan zuen.

—Baina nola defenditu gure burua? —galdetu zuen poetak, etsipenez beterik— Gu ez gara gerra gizonak, bakezaleak baizik.

Irribarre leuna marraztu zuen zaldunak bere ezpainenetan. Une batez, bederenik, gogoratu zitzaizkion poeta hark behinola jaurtitako hik ponposo eta esaldi guztiak. "Bakezaleak baizik". Gezur galanta. Herioren aurrean inoiz egon ez, eta besteen balentriak eta hilketak txalotu, horixe egiten zuten, besteen bizkar bizi ziren jaun jakintsu haiek. Nazka bola bat egiten zitzaiola sumatu zuen hesteetan, kiribiltzen eta korapilatzen zena, trikua balitz bezala, erakusmeneko oinazeak eraginez.

—Saia gaitezen ihes egiten hemendik—erantzun zuen Gilles aurpegiak jakinarazi zien lortuko ote zuten segurantzarik batere ez ordea, eta zalduna bera izan zen harrituena, hitz haiek beste batek ahoskatuak izan bailiren—. Gazte-gaztetatik ari naiz harengandik ihesi, Heriorengandik, alegia

—Alferrik gabiltza —entzun zizaion ordura arte mutu egon zen soldaduari—. Uste dut gureak egin duela. Honaino iritsi gara. Jainkoak abandonatu egin gaitu.

—Ez zaitetz horrela mintza —esan zuen apaizak, bere doinu maiestuoso harekin—. Jainkoak ez ditu sekula abandonatzen bere ardiak. Egin dezagun otoitz.

Inork ez zuen errezatu. Burua beste nonbait zuten, eta hitzak ez zitzaizkien aisa iristen eztarrira. Soldadua, erdi lo erdi esna, ardo gehiagoren bila balantzaka joan zen, zapaltzen ari zen zorua mugitzen baitzen haren oinetan, edo hori uste zuen.

Gilles Perraultek urduri samar haren ibiliari begiratu zion. Laster baretu zen, ordea, soldadua hitz egitean erabilitako doinua ez baitzen zirtolaria, ezta tragikoa ere, heriotza kontuetan adituarena baizik. Soldadua haiengana berriro etorri zenean, zuzenean galdetu zion:

—Zergatik esan duzu hori?

—Herio ez delako bakarrik ibili zale. Hona gentozelarik, basoko zuhaitzen artean zarata arraro eta zelebreek, hitz batzuk angelesen eran eta zaldien irrintziak entzun izan ez ote ditudan iruditu zait. Gero, lo geratu naizenean, gure gizon arrotz hura ikusi dut ametsetan, hamaika zaldun bere alboan. Eta orain ardotara joan naizenean, ez dakit baina, hotzikara batek erasan nau bizkarrezurrean! Bat edo bat gure zantzuan balego bezala. Onena itxarotea dugu.

—Arrazoia duzu, agian.

—Zer esan nahi duzue, ihesbiderik ez dugula? —galdetu zuen musikariak, ahotsa goratuz, hitz horiekin izua uxatu nahian.

—Agian, bai. Agian.

—Jainkoaren esku gaude, hilko gara berak nahi badu. Bestela ez. Mundu honetan ez baita deus gertatzen, ezta hostoen firfirarik ilaunena ere, haren borondaterik gabe. Herio ere bere harrokeria eta guzti zerbitzari jarria du, oinetan azpiratu zuen momentutik. Berriro diotsuet, otoitz egin beharko zenukete, baldin eta kristautzat bazenituzke zeuen buruak, —izan zen apaizak esandakoa. Gero, errezatzen segitu zuen, letania motz errepikakorra ahoskatuz, latinez betetako otoitz monokorde kordagarri bat.

—Oso oker zaude —erantzun zuen Gilles Perraultek lasai, bere esperientziaren letaniatik ateraz esaldi hori—. Heriok ez du ez jaun ez jaberik. Eta ez da Jainkoaren beraren beldur.

—Bekatu beltza da hori. Horrexegatik bakarrik mereziko zenuke hiltzea! —oihukatu zion apaizak mehatxu doinua jarriz ahotsean.

—Zaude isilik. Ondo merezia dut hemen bertantxe hiltzea, baina ez horregatik, gizon asko hil dudalako baizik. Eta zeuek ere hiltzea merezi duzue, hilarazi duzelako, zeuen eskuz ez bada, besteenaz baliaturik. Horixe da justizia. Gerlarien justizia. Ala orain ez duzue gerra eta gerra ondokorik atsegin? —eztanda egin zuen Gilles Perraultek.

Isiltasuna egin zen berriro, isiltasun sakon bat, likaren gisa gorputzean itsasten zena, zangoak berean geldiaraziz, eskuak mahaira tinkaraziz, aurpegiak oro zurbilduz. Pentsamenduak soilik ari ziren nora-hara ibiltzen,

errariak bailiren. Musikariak, ostutako partitura zerabilen buruan, nota haiek errepikatuz, haiek eskuratzeko egin baitzuen delitua eta, ondorioz, eragin izugarrikeria. Poeta, garai bateko frenesiari ateak zabaldu zizkioten bertsoak kantatzen ari zen bere kabutan, orduko amodio gau hura eta haren segidan etorri ziren guztiak zituen etengabe baina, eskuragaitz, jira-bueltaka buruaren labirintuan. "Hain dira ederrak, hainbestekoa da haien indarra, non heriotza baitakarte", errexitatu zuen. Apaiza, kaliz sakratuaz ari zen, urduri, egonezinik, baina egindakoaz damu zipitzik erakutsi gabe. "Ez da inor jaio anbizioak jartzen dizkigun segadetan eroriko ez denik. Jainkoaren haserrea eta haren herra eragin nituen, zigor nazake, beraz. Baina, tamalez, goizegi da hil nadin."

Pentsamendu erabat ezberdinez ari ziren gerlariak. Gilles Perrault, bere bitzta labur baino trinko hartan izandako zorion une bakarraz arin zen oroitzen. Hantxe balego bezala zekusan. Haur ttiki-ttikia besterik ez zen, eta mahats-landa baten erdian zegoen, sasoiko mikatz samarrak ziren mahats-aleak jaten gizon bizardun baten ondoan, ona eta eskuzabala zena lagun eta ahaideekin, baina krudela eta bortitza etsaien aurrean. Aita zuen. Urrutira, gaztelu bat bere armariarekin, non otso bat ageri baitzen, berak bere jantzietan marrazturik zeramanaren berdina, eta gazteluaren oinpean herri gozo eta polit bat. Usaindu ere egin zuen itsas hegiko bazter haiei zerien usaina. Herriko okindegietatik kanporatzen zen ogi zuriarena. Inguru haiek maite zituen, hara joan nahi zuen bizitzera noiz edo noiz; hantxe igaro gerrek, adinez gaztea izanik ere, ekarri zioten zahardade aurreratua. Oinezkoa, ardoaz ari zen, eta egun batean ostatuetan aurkitu eta hurrengoan ondotik bota izan zituen emakumeez. Edalontzia bete zuen poliki-poliki, tanta bakoitzak urreak edo perla batek adina balioko bailuen trukean. Izan zitezkeen-eta azken-azkenekoak.

-4-

Goizalbako lehen argi izpi zuriak leihoetatik irristatzen hasi orduko sartu zen gizon arrotza. Pozik zetorren, bere lana ondo betetzen dakienaren irribarrea ezpainetan. Diosala egin zien arima erratuen hanka zuten gizonei.

—Ea bada, mutilok. Gora bihotzak! Azkar ibili beharko dugu, ez dut-eta egun osoa hemen igarotzeko batere asmorik.

Soldaduak barre egin zuen, etsipenez.

—Eskerrak batek edo batek umorerik baduen. Ah!, zera esan behar dizuet. Soldadu angelesak aurkitu ditut basoan eta honantz bidali ditut. Antza denez, ez dute oraindik etxe honekin topo egin. Arraroa da. Oso garbi eman baitizkiet xehetasun guztiak. Galdu egingo ziren, edo ez dakit, baliteke eguzkiarekin batera etortzea hona —esan zien arrotzak, eta han zeuden gizonak, kanpoko aurpegia lasaia baina barnekoa dardarak jota zeudela ikusi zuenean, hitz egiten segitu zuen—. Azaldu behar dizuet orain zertan den gure jokoa. Zuetako batek frogatzen baldin badit Heriori, neuri beraz, gainditzeko ahalmena duela, hura libre utziko dut. Besteak, ordea, ez.

—Orduan zuri irabaziko dizuna salbatuko duzu? —galdetu zuen soldaduak, zeinu bat eginez buruarekin, joko hartan gehiegi sinesten ez zuela azaldu nahiz.

—Bai, halaxe da. Baina zerbait gehiago esango dizuet. Balitekeela inor ez salbatzea, guztiok salbatzea litekeena den bezala —gaineratu zuen gizon arrotzak, eta gero bere begiradak banan-banan aztertu zituen han zeuden guztiak. Haien izua areagotu egin zen une hartan. Zaldunak zapore mingotsa zuen ahoan, metalezko zerbait jan izan balu bezalakoxea. Nekez hartzen zuen arnasa.

—Has gaitezen, bada. Aurrena zu zeu Gilles Perrault—agindu zuen, zalduna hatz erakusle luze eta mehe batez seinalatuz.

Aulkitik altxatu eta ezpata atera zuen Gilles Perraultek.

—Ezpata hau eta biok —hasi zen zalduna esaten— lagun izan gara azkeneko hogeit hamar urte honetan. Ni hiltzen banaiz, altzairu puska hau izango da ni izan nintzenaren lekuko, nik lortutako garaipen guztien ezaugarri leial eta betikoa.

—Ondo esana, Gilles Perrault jauna —erantzun zion arrotzak, irribarre leun bezain burloso batez—. Baina nik ezpata hori hausten badut, zer geratuko da izan zarenaren lekuko?

—Zaldi beltz bat oso ederra dut hor kanpoan. Zaldi azkarra benetan. Ni hiltzen banaiz hura izango da izan naizenaren lekuko.

—Ez duzu irudimen handirik. Zaldia aberea da, eta abere guztien gisa biziduna. Eta hura hilko balitz, zer?

—Orduan, nire balentrien oroimena geratuko da lur honen luze-zabalean barreiatu. Gutxi bezalako gerlaria izan naiz. Galdu egin dut, batzuetan; baina irabazi ere bai gehiagotan. Historia-liburuetan idatziko dituzte borrokatu naizen gerra guztiak. Ni eta nire zaldia hiltzen bagara ere, oroimenean izango du jendeak Gilles Perraulten izena.

Arrotzak barre algara egin zuen.

—Oso oker zabilta. Inor ez da zutaz oroituko, inork ez baitu idatziko zuri buruzko historiarik.

—Gezurra! —oihukatu zuen zaldunak— Ez da posible!

—Bai, posible da —erantzun zuen arrotzak—. Hilko baitira zu ezagutzen zaituzten guztiak, zure berri duten guztiak. Ez duzu erremediorik. Hurrengo!

Soldadua altxatu zen. Haren eskuan uztai ageri zen, geziekin batera. Soka tenkatu zuen. Arrotzari begiratu zion. Ondoren uztai eta tragazak bota zituen lurrera.

—Egia esan, oso ona naiz uztaiarekin. Tragaza bota dezaket berrehun metrotaraino eta han dagoen soldaduaren bihotza erdi-erdian jo. Baina ezin dezaket ezer egin Heriori irabazteko. Amai dezagun azkar. Ez dut jokatu nahi.

Eskuak burura eraman zituen. Etsita zegoen.

—Ondo da. Ausarta zara benetan, baina horrek ez zaitu salbatuko. Zeuk ere badakizu hori. Baina jokatzeko segitu behar dugu. Hau ez da ume-jolas txantxetako. Zoaz zaldunaren ondora. Hurrengo!

Apaiza altxatu zen, eskua errosarioan.

—Has zaitetz zeure burua defenditzen! —agindu zion arrotzak.

—Hiltzen banaiz nitaz Jainkoa oroituko da —esan zuen xuxurla batean, ahots errukigarritz.

—Jainkoa zutaz oroitu! —barre ozena egin zuen arrotzak—. Ez du bada beste zereginik. Ez duzu bada sinetsiko hura ergela denik, ni ergela naizenik. Nork uste duzu bada ekarri nauela honaino? Zera gogoratuko da zutaz!

—Nire elizako gizon-emakume zintzoak gogoratuko dira nitaz eta nik emandako sermoiez. Atsegin handiz hartzen zituzten, kontsolagarriak zitzaizkien haien bihotz-arimei. Neu nintzen apaizen artean kuttunena...

—Ihes egin zenuen arte, eta orain zutaz oroitzen badira, zure izena laidotzeko eta iraintzeko besterik ez da, gehienetan. Eta inork balu zukanako oroitzapen on eta gozorik, itxaron besterik ez daukagu, ea zer gertatzen den hiltzen denean hori ere. Flakoa da gizon-emakumeen oroimena, ez da belaunaldiz belaunaldi luzatzen beti.

—Hitza geratzen zait oraindik. Sendoa da nire ahotsa. Berrogei metrotako baranoan denek entzun dezakete.

—Inork ez zaitu entzungo, hemen gaudenok ezik.

—Jainkoa konbentzi dezaket hark ni ez nazan abandona. Zerbitzari izan natzaio bizitza osoan, ezin nazake hiltzera utz.

—Oker zabilta, musde Abbadie, ezin lor dezakezu Semeak berak, Jesus Handiak, erdietsi ez zuena, hura ere hiltzera utzi baitzuen Jainkoak.

—Baina handia da haren Misericordia —oihukatu zuen apaizak eta otoizka hasi zen segidan—. "Aita Gurea zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena..."

—Zaude isilik! —eten zuen arrotzak—. Jainkoak ez zaitu-eta entzuten.

Arrotzari begiratu zion apaizak. Ideia bat etorri zen haren burura. Konbentzituko ote zuen arrotza bera, hiltzera utz ez zedin une hartan. Bizi nahi baitzuen. Bizitzari eusten zion bere indar guztiez.

Arrotzak berehala igarri zion zer pentsamendu klaseak zerabilzkion buruan.

—Ametsetan ari zara. Ez dut etsiko eta zoaz besteekin. Hurrengo!

Behera zituen bere begiak zuzendurik apaizak Bat batean belaunikatu eta bere eskuez arrotzaren belaunak inguratu zituen. Gero oihu lazgarri eta erdiragarri bat jaurti zuen.

—Ez dut hil nahi!

Poeta altxa zen. Pergamino bat zuen eskuan, tintaz zirriborraturik. Irakurtzen hasi zen

Hil dezakezue nire gorputza,

baina nire arima inoiz ez.

Zeren gorputza zuhaitza da,

arima, zeru-ortzian izartegi.

—Zenbat alferreko hitz? —esan zion arrotzak, poetaren zeinuak eta imintzioak imitatuz— Emaiozu tonto bati paper bat eta poeta dela sinetsiko du. Esadazu, zer ikusirik du arimak izartegiarekin?

—Infinituak direla biak.

—Poeta ez ezik, filosofoa ere ba ote zara?

—Nire arimak gaindituko zaitu, hilezkorra baita.

—Arimak ez du joko honetan parte hartzerik.

—Zergatik?

—Inork ez dielako arimek kasu zipitzik ere egiten. Ikusezinak dira, ez dira aditzen. Jakingo bazenu zer egiten diegun gure eskuetan erortzen diren arimek... Ilek harrotuko litzaizkizuke.

—Oroimenak salbatuko nau.

—Zureak?

—Ez, nitaz besteek dutenak. Maite izan ditudan emakumeak gogoratuko dira nitaz. Udazken gauetan, sutondoan daudenean bakar-bakarrik, zahardadearen ajeak gaineratik kendu ezinik dabilzanean, nik haientzat idatzi nituen poemak berrituko dituzte, eta nire irudia agertuko zaie sugarren artetik eta orduan ere maitatuko naute.

—Eta haiek hiltzen direnean?

—Beren alabei kantatuko dizkiete nire poemak eta haiek beren ondorengoei eta horrela izango naiz beti gogoratua eta maitatua.

—Oker zabilta zu ere horretan. Lotsa emango baitiete haiei eskainitako poemak beste edonork irakurtzeak, alaba badarik ere. Intimoegiak idatzi baitituzu, bihotz mamian gordetzeko hobeak, inori azaltzekoak baino. Hori, gutxienean oroitzen badira, zutaz, ezen maitasunaren sua itzaltzen denean, edo norbaitek hiltzen duenean, ahantziari deitu ohi baitzaio hark lagun dezan une mingarri horiek igaro daitezen lehenbailehen. Eta ahantziak, ni baino krudelagoa izaki, poema guztiak ezabatzen ditu, isiltasunarena baita maitale. Eta gerta daiteke ere, poema horiek berritzeak, hegan ekartzea berekin tristura, eta hori, seguru dakit, eromenaren anaia da, eta eroek ez dituzte poemak maite. Poema epikoak idatzi izan bazenitu!

—Poema idatziak geratzen zaizkit, ordea!

—Horiek ere, zure modura, hauts bihurtuko dira lehentxeago edo geroxeago. Hurrengo!

Musikaria hurbildu zitzaion. Eguzkia gora zihoan bere eguneroko bidean, baina hala ere ez zuen gehiegi argitzen. Hotza zegoen ostatuko sala hartan, eta guztiak kuzkurturik zeuden, beren berokietan bildurik. Txorien txintak entzuten ziren. Musikaria, gero, leihora hurbildu zen. Zeru gris antzeko bat ikusi zuen. Aire bat hasi zen txistuz jotzen. Motela zen hasera batean. Polki-poliki igoz joan zen ordea, eta handik gutxira zabaltzen hasia zen gelako bazter guztietara ez ezik, kanpora ere bai, neurri berriak hartuz, espazio, sakonera ezezagunetara egokituz. Soinu hark bat bateko ondorioa ekarri zuen. Mutu geratu ziren salako gainerantzekoak, doinu hura entzuten zuten bitartean. Isilik, une batez, txoriak. Baina, gero, inoiz ikusi ez zena gertatu zen. Txoriek, gero eta ugariagoek, musika hartaz jabetu eta orkestra bateko partaideak bailiren, nork bere eskalan, musikariari lagun egin zioten.

—Musika horrek —esan zuen arrotzak, ahots hunkituaz— salbatuko zaitu. Gizon emakumeek beti kantatuko dute txoriei ere kutsatzen zaien melodia bat. Hau al da zure maisuari ostutako partiturekin egin duzun musika?.

—Bai! —erantzun zuen musikariak, begi arraiekin, aurpegi alaiez— Musika guztien gaineratik jartzen da hau. Ez zait batere inporta hiltzea, neure belarriez horrelakorik entzun ondoren.

—Ez zara hilko —esan zion arrotzak ahots leun baina irmoaz— Oraingo behintzat ez. Zaldia duzu hor kanpoan zure zain. Har ezazu eta zoaz zure maisuarengana. Bizirik dago oraindik. Agindu baitiot bere azken borondatea gauzatu arte ez nuela nirekin eramango. Zu ikusi nahi zaitut azken arnasa eman baino lehen. Barkatu dizula esan dit zuk egindakoa. Zoaz. Zoaz arin.

Musikaria negarrez hasi zen. Malkoak erortzen zitzaizkion begietatik behera, bi ibaitxo gazi sortuz. Ateburua gainditzen ikusi zuten tristuraz besteek.

Beltzez jantzitako gizona ere begira geratu zitzaion leihotik. Gero eseri eta doinu agintariz hitz egin zuen:

—Iritsi dira soldadu angelesak. Sartzeko esango diet.